

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculumuma

Baloratzeko eta hobetzeko proposamena
(2009ko azaroa)

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculuma

Atarikoa

Sarrera

“Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculumaren” proposamena ezagutza alor honetan formazio aukerak sustatzeko gogoz aritu diren zenbait erakunde eta elkarteren ekimenetik sortu da. Dantza tradizionalaren transmisio sistemen aldaketak eta baldintza berrietara egokitu beharrak kezka eragiten du aspaldiko urteotan sektorean. Ardura hori behin eta berriz agertu da bai eragileek egindako gogoetetan eta baita erakundeekin izandako harremanetan ere.

Dantza tradizionalaren sektoreak agertutako kezka horri erantzunez Dantzan Ikasi programa jarri zuen abian Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko abenduan. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Ikerfolk elkarteak egin dute programaren jarraipena eta dantzan.com elkarteak implementatu du programa. Oinarrizko dantza ikastaro eskaintza bat bideratzeaz gain, dantza irakasleen balizko titulazio baterako curriculum bat prestatzen joateko urratsak eman dira Dantzan Ikasi ekimenaren bidez.

Euskal dantza tradizionalen curriculumaren proposamenarekin bi helburu bete nahi dira. Batetik, euskal dantza tradizionalen ikasketa eta titulazio bat martxan jartzeko bidean urratsak ematea eta horrelako proiektu bat bere egin dezakeen erakundearentzat pizgarri eta lagungarri gertatzea. Bestetik, dantza tradizionalaren irakaskuntza ez-arautuan dabilzan elkarte eta ekimenentzat (Dantzan Ikasi barne) beren jarduera formatiboetarako gida erabilgarria eta baliagarria eskaintzea.

Lehen proposamen hau egiteko aurre-azterketak egin dituzte zenbait elkarte eta norbanakok eta haien zirriborroetan oinarrituta apailatu da. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Ikerfolk elkarteek txosten bana prestatu zuten eta horiek izan dira abiapuntuan erabilitako materialak. Bigarren etapan Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailako presidente den Emilio Xabier Dueñas-ek, Gasteizko Folklore Eskolako zuzendari eta irakasle taldeak, eta Bilbao Musika Eskolako eta Aiko taldeko irakasle Patxi Labordak beraien gogoetak helarazi dizkigute. Bihoaz guztiei gure eskerrik beroenak.

Honako hau proposamen mailako ekarpena da, eta horrenbestez, euskal dantza tradizionalaren alorrean diharduten erakunde, elkarte, talde eta norbanakoen esku jarriko da, proposamena aztertu, eztabaidatu eta hobetzeko proposamenak egiteko.

Aurrekariak

Euskal dantza tradizionalaren transmisioa kezka iturri da luzaroan eta horren inguruko gogoetak eta proposamenak pilatzen joan dira azken hamarkadetan. Dantza tradizionalaren iraunkortasuna eta gizarte aldaketen aurrean egokitzearen inguruko eztabaiden baitan agertu da maiz transmisio moduen aldaketari buruzko kezka.

Ortzadar elkarteak Iruñean antolatzen dituen Folklore eta Kultura Tradizionalari Buruzko Jardunaldietan alor horri buruzko pentsamendua, ikerketa eta gogoeta sustatu eta zabaltzeko programak antolatzen dira, eta zehazki, 1999an "Dantza eta dantza taldeen gaur egungo egoera euskal kultura" jardunaldiak burutu ziren. Dantzaren eta dantza taldeen ibilbide eta egoerari buruzko diagnostikoen artean formazioari buruzko kezka maiz agertzen da jardunaldian parte hartu zuten ikertzaileen artean. *"...una de las primeras actividades que debiera desarrollar un grupo, es la de una formación integral en el folclore del país a todo aquel que se acerque al mismo"* dio Iñaki Irigoien-ek (2003: 402), eta batez ere dantza irakasleen formazioa da kezka eragile nagusia: *"Se alega muchas veces la falta de formación en estos temas de los enseñantes o monitores. (...) esta formación de los responsables técnicos es, o debiera ser al menos, uno de los objetivos prioritarios de la Federación"* (IRIGOIEN, 2003: 403).

Bizkaiko dantza tradizionalaren egoerari buruzko azterketa egin ondoren erakundeei formazio alorrean esku-hartzeko eskaera luzatu zioten Jose Alfonso Antequerak eta Jose Patricio Aldamak Ortzadarren jardunaldi horietan: *"En los grupos de danza actuales venimos observando en los últimos tiempos una preocupante pérdida de la figura del Maestro de Danza, de modo que muchos dantzaris son incapaces de hacer frente al aprendizaje de los distintos bailes del País"*. (ANTEQUERA & ALDAMA, 2003: 434).

Dantza eta musika tradizionalaren osasun egoeraren inguruko gogoeta orokor baten testuinguruan bideratu zituen Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailak "Dantza eta Musika tradizionalaren topaketak" 2005. urtean Abadiñon. Dantza tradizionalaren sektoreari buruzko gabezia eta erronken artan hezkuntzari dagokionez salaketa gordina egin zuen Emilio Xabier Dueñas-ek: *"En la enseñanza, (...) la danza, al menos en este país, ha sufrido y sufre un total desprecio, únicamente defendido por los postulados de los grupos de danzas tradicionales"*. Norabide berean, Dantza irakasleen umezurtz egoeraz mintzatu zen Joseba Altube: *"Lo que sí veo en el sector es una grave falta de formación. En los grupos de folklore, digamos que hay 1.000 formadores. ¿Y quién forma a esos formadores? Nadie. No*

tiene a dónde dirigirse”.

Helburu zehatz eta praktikoekin, dantza tradizionala eskoletara eraman eta bertan landu ahal izateko gida eta eduki proposamenak egin izan dira. *La danza vasca en las escuelas* lana egin zuen Iñaki Irigoien-ek orain 20 urte EDBk Bilboko eskoletan gauzatutako programara begira. “Euskal dantza eskolan: Folklore Eskolara Euskal Dantzaren Bidez” (SIENRA eta ZENGOTITA-BENGOA, 1993) eta “Folklore y educación: hacia una nueva metodología” (LARRINAGA, 2007) moduko lanekin hezkuntza orokorrean dantza tradizionala eta folklorea lantzearen onurak, esperientzien kronikak eta proposamenak ezagutzera eman dira.

Derrigorrezko hezkuntza orokorrean musika eta heziketa fisikoa jakintza alorren baitan dantzak izan dezakeen tokia eta landu daitezkeen konpetentziak zehaztu dira irakaskuntza orokorreko curriculumetan. Dantza talde eta dantza eskoletan lantzeko curriculumak ez dira neurri berean landu, baina dantza irakasle horiek formatzeko ikastaroak eskaini dira beste zenbaitetan. Adibidez Ikerfolk elkartak Jira Galdua ikastaroak eta aldizkariak kaleratu ditu, EDBk Folklore hastapen ikastaroa eta dantzar irakasleen formaziorako mintegiak burutu ditu, Bilbao Musikak Ikasfolk proiektua burutu du, beste zenbait elkarte eta taldek egin dituzte bide horretan ahaleginak.

Dantza irakasleak berak, edo dantza tradizionalaren alorrean goi mailako trebakuntza jaso nahi duenak landu beharreko konpetentzia eta edukiak antolatzen joatea da honako lan honen helburua. Asmo horrekin egindako ahaleginen artean aipatzekoa dira 1996. urtean, Eusko Jaurkitzearen Kultura Sailak deituta Euskal Autonomia Elkartearen dantzaren sektorearekin egindako bilerak. Dantzaren egoerari eta hartu beharreko neurrien inguruan iritziak konpartitu ondoren, alor bakoitzeko bilerak burutu ziren eta galdera nagusi bati erantzun bat adosteko ahalegina eskatu zitzaizen taldeei. Dantza tradizionalaren eragileak bildu zituen taldean aho batez adostu eta aldarrikatu zen formakuntza zela kezka nagusia eta premia larrienean aurkitzen zena. “*Dantza tradizionalaren irakaslearen formakuntzarako kurtsoen beharra agerian geratzen da*” jaso zuten dantza tradizionalako sektorearen ordezkariak bilerako aktan. Eskaera zehatz hari ahalik eta bultzada handiena eskaintzeko, dantza tradizionalaren alorreko ordezkariak formakuntza ikastaro haietan lantzeko oinarriko curriculum baten zirriborroa adostu zuten. Proposamen hura erakundeen administrazio korapiloetan galdu zen eta ez zuen biderik egin.

Ekarpenak

"Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculuma" prestatzeko ezagutza alor honetan eskarmentua duten zenbait elkarte eta eragileri hausnarketa eta proposamenak egiteko gonbitea luzatu zaie. Bakoitzari egindako galdera honako hau izan da: *"Dantza tradizionalaren irakaskuntzan –irakaskuntza hori bideratu daitekeen eremu guztiak kontuan hartuta– aritu nahi duen den dantza irakasleak zein konpetentzia eta ezagutza izan beharko lituzke?"*.

Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Ikerfolk elkarteek dantza irakasleen formazioaren inguruko gogoetak eta curriculum proposamenak landu dituzte. Gasteizko Udal Folklore Eskolako irakasle taldeak, Eusko Ikaskuntzako Folklore Saileko presidentea den Emilio Xabier Dueñas-ek eta Bilbao Musikako eta Aiko taldeko irakasle Patxi Labordak galdera horri erantzun zehatza eta neurtua emateko ahalegina egin dute.

Konpetentziak garatzea helburu duen curriculum diseinu bat planteatu du Gipuzkoako EDBk eta horretarako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum erabili du eredutzat. Horren arabera Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zenbait arlotako konpetentzia eta helburuen artean dantzan aplikatzeko egokiak direnak hautatu eta egokitu ditu (ikus 1. eranskina). 12 konpetentzia nagusi definitu ditu Gipuzkoako EDBk bere curriculum proposamenean eta konpetentzia horiek lantzeko zenbait ikasketa plana aurkeztu du. Aurreko prestakuntza (estilo eta teknika), hezkuntzara bideratuta heziketa pedagogikoa eta euskal dantzen errepertorioko estilo eta teknika desberdinak lantzeko programa.

Dantza Maisu-Maistrek bere lana behar bezala burutzeko jarraitu behar luketen ikasketen ibilbidea, edukiak, jakin beharreko gaiak eta lehen planteamendu baten zirriborroa prestatu du Ikerfolk elkarteak. Zer jakin beharko lukeen eta zer ikasi behar duen aztertu dute Ikerfolk elkarteko Juan Antonio Urbeltz-ek eta Iñaki Arregi, eta guzti hori nola antolatu eta atondu bigarren esparru batean kokatu dute. Dantza maisu-maistren eginkizuna dantza irakastea izanik, irakaskuntza horretan dantzaren iraganaren eta etorkizunaren arteko zubi lanak egiteak duen garrantzia azpimarratu dute., eta horretarako, gaiari buruzko ulermen, ezagutza eta esperientzian oinarritutako irizpide osatu eta sendoak behar ditu dantza maisuak. Disziplina anitzeko dimentsioa duen formazioa proposatzen du Ikerfolk-ek, *"dantzatik abiatuta musika, jantzi, erritual, prestakuntza fisiko eta ezagutza teorikoaren inguruan osatzen dena"* eta euskal tradizioa Europako ondare zabalago baten parte bezala ulertuko duena.

Eskema pedagogikorako eredu preklasikoetan oinarritutako marko metodologikoak proposatu ditu Ikerfolk-ek. Hezkuntza orokorreko ikastetxeetan zein dantza taldeetan

aplikatu daitezkeen ibilbide pedagogiko baten zirriborroa eskaini du, eta baita lantzeko egokiak izan daitezkeen dantzen katalogo zehatz bat ere. Dantza maisu-maistraren ikasle helburua 8-10 urtetik gorako gazteengan kokatzen du Ikerfolk-ek, adin horretatik beherako umeengana dantza jolas eta joko sinpleen bidez hurbildu behar delako. Prestakuntza fisikoa, marko teorikoa eta musikologia oinarri sendoak beharrezko antzematen dituzte.

Musika eta erritmoaren oinarrizko prestakuntza beharrezko jotzen dute Gasteizko Folklore Udal Eskolako zuzendari eta irakasleek beraien proposamenean. Dantza irakasleak garatu behar dituen konpetentzia pedagogikoak jaso dituzte, eta dantza tradizionalaren alorreko erreperitorioaren ezagutza, eta beste dantza moten zein dantzaren ezagutza teoriko-praktiko zabal baten interesa azpimarratu dute lokomozio aparatuen ezagutzarekin batera.

Lengoaia musikalean prestakuntza beharrezkotzat jotzen du halaber Patxi Laborda Bilbao Musika Eskolako dantza irakasleak eta Aiko taldeko kideak. Psikomotrizate alorreko ezagutzen interesa ere azpimarratu du. Erreperitorioari dagokionez, dantza zehatzetan baino sistemetan jartzen du arreta, alegia genero bakoitzaren egitura eta ezaugarriak menperatzean, ahalik eta aldaera zehatz gehieneki aberastuz. Gutxienez musika-tresna bat jotzeko gaitasuna izatea proposatu du Patxi Labordak. Prestakuntza etnokoreogologiko zabal batetik dantza tradizionalakaren testuinguruen ezagutza, inprobisazioa, dantza eta kantua, irakaskuntza sistema tradizionala eta inguruko herrialdeetako dantza tradizionalen ezagutza lantzea proposatzen du.

Dantza maisu on batek XXI: mendean izan beharko lituzkeen dohainak aztertu ditu Emilio Xabier Dueñas, Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailaren lehendakariak. Euskal Kulturaren inguruko ezagutza orokorraz gain tradizio eta ohituren inguruko zehatza beharko lukeela uste du Dueñas-ek, dantza tradizionala osotasun horretan osagai bat gehiago baita. Dantza tradizionalen ezagutza zehatzarekin batera dantza garaikide eta klasikoaren ezagutza teorikoa izatearen interesa aipatzen du. Musika lengoian oinarria izatea ezinbestekotzat jotzen du. Dantzak nola irakatsi jakin behar du irakasleak eta horretarako metodologia egoki bat landu beharko dela antzematen du, ahaztu gabe kalitatea oinarrizko balioa izango dela sistema kurrikular osoan.

Gaitasunak helburu

Goi mailako ikasketak dira hemen aztergai daudenak. Azken urteotan hezkuntza sistema osoan ari da sistema pedagogikoaren erreforma burutzen eta gaur egun unibertsitate sisteman gauzatzen ari den eraldaketa oihartzun zabala izaten ari da. Bolognako prozesuarekin irakaskuntzaren metodologian aldaketa nabarmenak gauzatu dira. Ikasketa berriak izanik, hasiera hasieratik eredu berrian inspiratutako curriculuma izango da honako hau.

"Gaitasunetan oinarritutako formazioaren ikuspegia eta irakasteko-ikasteko metodologiaren berrikuntza sakona" (PEREZ / BALLUERKA, 2008:26) dira irakaskuntza kultura berri horren ezaugarri nagusiak. Ezagutza metatzea helburu zuten curriculumak baztertu, eta testuinguru zehatzetan moldatzen jakiteko gaitasunak garatzea du helburu sistema berriak. Gaitasunak eta balioak dira helburu, eta ezagutzak aurrekoetara iristeko bidean bitarteko eta bidaide. Horrenbestez, irakaskuntzaren plangintza egiteko, ibilbide kurrikular horren bukaeran ikasleak bereganatuta izan beharko lituzkeen gaitasunen multzoa hartzen da ardatz bezala.

Ikasleak formazio ibilbidea osatuta, hautatutako lanbidean autonomiaz jarduteko gaitasunak garatuta izan ditzala bermatu behar du curriculumaren implementazioak. Alegia, dantza irakaskuntzan zein dantza tradizionalaren inguruko beste jarduera profesionaletan aritzeko prestatuta, gaituta, bukatu beharko lituzke ikasleak ikasketak.

Curriculum proposamenak egin dituzten elkarte eta norbanakoek aintzat hartu dute ikuspegi berri hori, eta honako apailatze lan honetan ere horren arabera egituratu da plangintza. Dantza ikasketen curriculuma dantza errepertorio zehatzen zerrendekin osatzeko tentazioa uxatuta, dantza katalogo interesgarri horiek ikaslearen gaitasunak hezur-mamitzeko baliatzen asmatzea da lan honek duen erronka nagusia. Gainera, modu horretara, dantza tradizionalen kasuan oso ohikoak eta oso garrantzitsuak diren lokalismoen sarean harrapatuta ez geratzeko aukera izango da. Sistematan koreografiko tradizionalan trebatutako ikasleak tokian-tokiko errepertorioen oinarriak ezagutzeaz gain, horiek baliatu eta dinamizatzeko gaitasuna garatua izan beharko du ikasketak bukatzerako.

Ikasketen eremua

Euskal dantza tradizionalaren alorrean ez dago gaur egun ikasketa arauturik egiteko aukerarik. Ikasketa horien beharra dantza tradizionalaren ingurune desberdinetan antzeman da, hala nola, ikuskizunen sorkuntza ari direnengan, dantza taldeen kudeaketan dabilzanengan edo dantza tradizionalaren inguruko elkarte eta taldeen kudeaketan dihardutenengan adibidez, baina modu nabarmenean, dantza tradizionalaren irakaskuntzan dihardutenek aldarrikatu dute behar hori.

Eskaera nagusia irakaskuntzatik etorrira, hasierako proposamenak irakaskuntzara begira, alegia, irakasleen formaziora begira egin dira. Dantza tradizionalaren irakaskuntza bera ordea eremu eta maila oso desberdinetan gauzatzen da: hezkuntza orokorrean musika eta dantza konpetentzia multzoan lantzen da dantza tradizionala, zenbait eskolatan aisialdiko eskaintzako osagaietako bat dantza, zenbait kultur etxetan helduen aktibitate psikomotriz eta musikalak dinamizatze erabiltzen da, zientzako dantza taldeetan begirale, dantzari eta irakasleak ume taldeak dantzan jartzen aritzen dira, hainbat Musika eta Dantza Eskoletan sustrai tradizionalako eskaintzaren baitan lantzen da, plaza zein areto itxietan dantzaldi gidatuak animatzen aritzen dira zenbait gidari, e.a.

Jarduera eremu horietako bakoitzaren beharrak eta irakasleen formazio eskaerak bereziak izan daitezke. Eta horiek gutxi balira, badira irakaskuntzan aritu gabe, dantza tradizionala beren jardueraren oinarritzko lehengaitzat duten beste zenbait eragile, kudeaketa, sustapen, komunikazio, koordinazio, jantzigintza, musikari edo animazio lanetan besteak beste.

Curriculum honetan, ikasketa hauek dantza tradizionala beren jardueraren ardatz izan nahi duten ikasle guztiei zuzenduta izan daitezela proposatzen da. Alegia, eremu guztietan edo edozeinetan arituko diren irakasleentzat, zein dantza tradizionalaren irakaskuntzan aritu gabe ere, dantza tradizionalaren inguruko formazio trinkoa beren jarduerarako hezurmuinekoa gertatuko zaienentzat.

Erreferentziak

ALBISU, ANE.

2005. "Euskal dantzaren modernizazioa", In dantzan.com, 2005
<http://www.dantzan.com/edukiak/euskal-dantzaren-modernizazioa/>

ARANA, Lide.

2002. "Dantzaren hedapena Euskal Herrian: zenbait ohar", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. 751-754. orr.

ARANBURU, Mikel.

2002. "La Gestión del Folclore. Diez consideraciones desde un enfoque teórico", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. 287-290. orr.

ARAOLAZA ARRIETA, Oier.

2002. "Euskal dantza tradizioaletik abiatutako ikuskizunak gaur: begirada bat lau proposameni", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2002. 309-315. orr.

ARISTIZABAL, Fernando; ARREGI, Iñaki. LARREA, Jexux.

2005. *Oroimenaren haritik*, dantzan.com, 2005. <http://www.dantzan.com/albisteak/oroimenaren-haritik>

ANTEQUERA, José Alfonso; ALDAMA, Jose Patricio.

2000, "Reflexiones sobre la situación actual de la danza en el territorio histórico de Bizkaia", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Iruñea: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 2000, 405-438. orr.

ASKOREN ARTEAN

1996. "Dantzaren sektorearen eskaera Eusko Jaurlaritzari", 1996-05-25, Dantzaren sektoreko ordezkariak, argitaratu gabeko lana, Donostia: 1996.

2004. *Kulturaren Euskal Plana*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2004.

2004. *Euskal Curriculuma: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2004.

2006. *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculuma. Euskal Curriculuma baloratzeko eta*

hobetzeko proposamena. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2006.

BIDADOR, Joxemiel.

2009. "La danza en la enseñanza y la enseñanza de la danza: antecedentes del grupo txiki", in *Dantzariak*, N.55, Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 2009.

CLAVERIE, Filgi.

2002. "L'exemple de Biarritz = Dantzaren antolamendua Frantzia: C.N.N.-ak. Miarritzeko eredu", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2002. 751-754. orr.

DUEÑAS, Emilio Xabier.

2000. "Los grupos de danza vasca a debate: Impresiones de una actualidad a nivel nacional", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Ortzadar Euskal Folklore Taldea, Iruñea, 2000. 459-468. orr.

ETXABE ZULAIKA, Xabier.

2006. "Euskal dantza: sasoiari ala krisian?", *dantzan.com*, 2006.
<http://www.dantzan.com/edukiak/euskal-dantzaren-osasunaz/>

FERNANDEZ DE LARRINOA, Kepa (koord.)

1998. *Invitación al estudio de la danza tradicional en el País Vasco*: Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1998.

2004. *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004.

GOMEZ LINARES, Alicia.

2003. "La enseñanza de la danza en el estado español. Situación actual y convergencia europea", documentación sin publicar In *La Danza den la Universidad*, IV. Encuentros de Arte y Cultura, Bilbao: EHU-UPV, 2003.

IRIGOIEN, Iñaki.

1989. *Danzas vascas en las escuelas*, Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra; 1989

1998. "Euskal Dantza, 50 urteko historia laburra", in *Gipuzkoa 50 urte dantzan. Goizaldi 1948-1998*, Donostia: Goizaldi, 1998, 22-39 .orr.

2000. "Desarrollo de la danza folclórica durante los últimos 50 años", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Iruñea: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 2000, 387-404. orr.

ITZAINA, Xabier.

2000. "Herri kulturatik euskal kulturarat. Dantza Ipar Euskal Herrian", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Iruñea: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 2000. 323-340. orr.

LARRINAGA ZUGADI, Josu.

2001. "Folklore infantil: de la tradición oral a la educación", in *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, N. 7, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001. 13-31 . orr.

2007. "Folklore y educación: hacia una nueva metodología", in *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore / Eusko Ikaskuntza*, N.9, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007.

LEGORBURU ARZAMENDI, Mikel.

2001. "Folklore euskal curriculumaren globalizatzailea", in *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, N. 7, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001, 7-12 . orr.

MORENO, Ana.

2002. "Apuntes sobre la formación y enseñanza de la danza en Guipúzcoa y Navarra = Gipuzkoan eta Nafarroan dantza prestakuntza eta irakaskuntzari buruzko oharak", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002, 743-744. orr.

MUJIKA, Josu.

2002. "La danza en Euskal Herria: situación actual y perspectivas de futuro = Dantza Euskal Herrian: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. 743-744. orr.

OREGI, Sabin.

2001. "Euskal Herriko ikasbidearen oinarriak eta aldaketak", in *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, N. 7, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001. 211-224 . orr.

PEREZ IGLESIAS, Juan Ignacio / BALLUERKA, Nekane

2008. "Bolognaren alde", in *Jakin*, 168. zkia. Donostia: Jakinkizunak, 2008.

PINO ESCOBAR, Susana del.

2003. "Situación actual de la danza en las distintas universidades españolas", documentación sin publicar In *La Danza den la Universidad*, IV. Encuentros de Arte y Cultura, Bilbao: EHU-UPV, 2003.

QUIJERA PÉREZ, José Antonio.

2001. "Derrigorrezko hezkuntzan folklorearen irakaskuntzaz hausnarketa batzu", in *Euskonews*, 118. zkia, Eusko Ikaskuntza, 2001. <http://www.euskonews.com/0118zbk/gaia11801eu.html>

2002. "Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. 291-301. orr.

SÁNCHEZ EKIZA, Karlos.

2000. "Ideologías, identidades y tradición en la danza tradicional vasca: El caso del Aurreku", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Iruñea: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 2000. 341-352 . orr.

2002. "Folkloreari aplikaturiko lan metodologia berriak", in *XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques (15.2001.Donostia)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. 303-308. orr.

SEBASTIAN GARCIA, Lorenzo.

2001. "La asesoría Técnica en Folklore Vasco del Departamento de Cultura de Euzkadi (1936-1937)", in *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, N. 7, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2001. 185-210 . Orr.

SIENRA, Gerardo; ZENGOTITA-BENGOA, Amaia.

1995. "Euskal dantza eskola: Folklore Eskolara Euskal Dantzaren Bidez", in *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean*. Vitoria-Gasteiz, 1993. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995. p. 387-406.

URRUZOLA, Juan Mari; ROJO, Fernando.

2000. "Euskal Dantzak Tolosaldean: Tradizioa ala ikuskizuna", in *Sukil 3. Cuadernos de Cultura Tradicional*, Iruñea: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 2000. 353-368. orr.

URBELTZ, Juan Antonio.

2003. "Argia como memoria", in *Danza Vasca. Aproximación a los símbolos*, Donostia: Etor-Ostoa, 2003.

URIEL, Perfecto.

2003. "La enseñanza de la Danza en Europa", documentación sin publicar In *La Danza den la Universidad*, IV. Encuentros de Arte y Cultura, Bilbao: EHU-UPV, 2003.

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculumua

Baloratzeko eta hobetzeko proposamena
(2009ko azaroa)

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculuma

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculuma ikasketa horietako irakaskuntza arautu behar duten ebaluazio-irizpide, helburu eta eduki multzoa da.

Helburu orokorrak

Euskal dantza tradizionalen ikasketen helburua ikasleen gaitasun orokorrak eta hezkuntza sistemak berezko dituen gizalegezko baloreak garatzea da, eta horiez gain, kalitatezko dantza formazioa eskaintzea, dantzaren praktika artistikoaren gozamena sustatuz. Dantza tradizionalen ikasketek ikasleengan gaitasun hauek garatzen lagunduko dute:

- a) Dantza lengoaia artistiko moduan eta herri eta norbanakoen komunikazio eta kultura adierazpenerako tresna bezala duen gaitasunaz jabetzea.
- b) Euskal dantza tradizionalen ondarea ezagutzea eta baloratzea, emanaldiekin gozatzen ikastea, eta dantza bere osotasunean, ondare historiko eta kultural gisa gisa ezagutzea eta baloratzea.
- c) Dantzatze gaitasuna garatzea bakoitzaren komunikazio eta adierazpen aukerak aberastuz. Dantza tradizionalaren menperatze tekniko eta estilistikoa erakustea, jatorrizkoak zehaztasunez berregiteko memoria koreografikoa frogatuz eta ohiko sistematika koreografikoaren ezagutzaren bidez unean uneko soluzioak proposatzeko gaitasuna erakutsiz.
- d) Dantzaren ikaskuntza gauzatzeko beharrezko diren bakarkako zein talde lanerako ohiturak, eta ahaleginen eta arduren ohiturak garatzea, eta dantzan jarduteko ezinbesteko diren behaketa zein entzuketarako kontzentrazioa garatzea.
- e) Taldean parte hartzen jakitea, modu orekatuan integratuz, eta dagokionean ardurak hartuz eta horie erantzunez.
- f) Jendaurrean dantzatzea, nork bere buruarekin ziurtasunez jokatuz, memorizatutako dantzak fidelki erreproduzitzen zein egitura tradizionalen ezagutzak sustatzen dituen

inprobisazio bideak jorratuz, eta dantzatzeak bere gain duen komunikazio gaitasuna baliatuz.

- g) Dantzaren gozamena dastatzen jakitea, gozamen hori transmititzeko estrategiak garatzea, eta gorputzaren eta sentipenen ezagutzaren bidez oreka fisiko eta emozionala garatzea.

Helburu zehatzak

Ikasketa hauek burutzen dituen ikasleekiko honako helburu zehatz hauekin gauzatuko da dantza tradizionalan formakuntza plana.

- a) Dantza tradizionalan eta dantza tradizionalarekin taldean zein bakarka jarduteko eta gozatzeko formazio teoriko eta praktikoko egoki bat eskaintzea.
- b) Dantza tradizionalen ikuspegi zabal eta aberats bat eskaintzea, ondare komunikatibo eta artistiko honek dituen balio guztiak ezagutzeko aukera emanez, eta testuinguru guztietan gauzatzeko gaitasunak eskainiz.
- c) Tokian tokiko tradiziozko dantzak bildu eta zabaldu, herri kulturaren eraginez, irakaskuntza, sentsibilizazio kanpaina, emanaldi zein bestelako ekimenen bidez.

Ikasgaiak

Helburuak betetzeko honako ikasgaiak landuko dira ikasketa ibilbidean zehar:

- a) Dantza formazio teoriko orokorra
 - Dantzaren historia unibertsala
 - Dantzaren antropologia
 - Kultura tradizionala
 - Jai egutegia

- b) Dantzara aplikatutako musika formakuntza
 - Lengoia musikala: irakurketa eta idazketa
 - Egitura ritmikoak dantza tradizioaletan
 - Dantzarako kontzeptu baliogarriak: tenpoa, konpasa, anakrusa,...
 - Organologia eta forma orkestral tradizionalak
 - Erritmoa eta mugimenduaren didaktika

- c) Anatomia eta gorputz heziketa
 - Anatomia
 - Fisiologia
 - Gorputz heziketa
 - Dantzako patologia fisiko nagusiak

- d) Dantza teknika eta formazioa
 - Dantza akademiko klasikoa
 - Dantza garaikidea
 - Koreografia
 - Dantza antzezpena

- e) Mugimenduaren didaktika, psikomotritatea eta koordinazioa

- f) Euskal dantza tradizionala, errepertorio orokorra (teoriko-praktikoa)
 - Soka-dantzak, dantza-kordak eta ingurutxoak
 - Ezpata-dantzak eta arku-dantzak
 - Trokeo-dantzak, dantzari-dantza eta makila-dantzak
 - Paloteados eta Dance-ak

- Jauziak, mutxikoak eta mutil-dantzak
- Inauteri-dantzak
- Irri-dantzak eta dantza-kantatuak
- Bakarkako dantzak: txakolin, almute-dantza, mahai-gaineko, kaxarranka,...
- Teknika preklasikoak: Gipuzkoa, Zuberoa,...
- Erromeriako errepertorioa
 - Dantza soltea: Jota, Porrúa, Fandango, Arin-arina
 - Bikote dantzak: bals, korrido, mazurka, polkak, schottis,..
 - Kontra-dantzak

g) Dantzara aplikatutako pedagogia

- Motibazioa
- Komunikazioa
- Baliabide pedagogikoak

h) Europako dantza tradizionalak

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculumua

Adituen txostenak

- Gasteizko Udal Folklore Akademia
- Patxi Laborda (Aiko taldea)
- Emilio Xabier Dueñas (Eusko Ikaskuntza – Folklore Saila)

Gasteizko Folkore Udal Akademia

Zuzendaritza eta dantzari irakasleak
Jon, Marta, Elena, Aizkoa, Josu eta Pedro

Dantza irakaslearen curriculum-erako zirriborroa

1.- Rítmico musicales

- ❖ Lenguaje Musical
 - Competencia a nivel de lectura melódico-rítmica de partituras habituales en el repertorio
- ❖ Formas musicales
 - Reconocimiento de formas musicales comunes en el repertorio tradicional: orígenes, evolución, estructuras elementales.
- ❖ Organología y formaciones orquestales tradicionales
- ❖ Pedagogía y didáctico del ritmo y del movimiento

2.- Didactico pedagógicos

- Desarrollo y psicomotricidad
- Recursos pedagógicos en el aula
- Improvisación
- Elementos de motivación del alumno
- Competencias en comunicación

3.- Danza tradicional

Contenidos técnicos, teóricos y prácticos de la danza tradicional:

- Escuela de Guipúzcoa
- Escuela de Xuberoa
- Dantzari dantza
- Soka Dantza
- Paloteados y Dances
- Iauziak, Muxikoak, Mutil dantzak.

- Ritmos de Suite.
- Baile al suelto
- Otros ciclos de danza: Carnaval...

4.- Otros contenidos de danza

1. Danza clásica: nociones y pasos elementales
2. Danza contemporánea.
3. Coreografía.
4. Expresión dramática
5. Escenografía
6. Danzas tradicionales del mundo.
7. Danzas de salón
8. Ritmos de danza de los siglos XIX y XX

5.- El aparato locomotor: anatomía, fisiología, patologías más frecuentes en relación con la danza.

Aiko taldea
Bilbao Musika Eskola
Patxi Laborda

Dantza Maisuen Kurrikuluma

Zirriborroa

1.-Hizkuntza musikala

- Esaldiak eta Konpasak
- Erritmoak (binarioa, ternarioa...). Euskal plazetan eman diren oinarrizko estruktura erritmikoak,
- Pulsua, azentoa.
- Tempoak, metronomoaren erabilera
- Anakrusa
- Oinarrizko irakurketa eta idazketa
- ...

2.- Psikomotrizitatea

- Ibilera, Suspensio ezberdinak, jauziak
- Txorkatila, oina, belauna, gerria, besoak
- Oreka
- Espazioaren kontrola
- ...

3.-Errepertorioa

Errepertorioaren zerrenda bat egin beharrian, neretzako interesgarriagoa izanen litzateke dantza maisu batek menperatzea sistema bera, dagozkion dantzak baino, hau da:

Jota eta arin arinaren sistema

Jauzien Sistema (mutildantzak?)

Gipuzkoako sistema (taula koreografikoa)

Zuberoako sistema

Kontradantzen sistema

...

Eta ahal izan balitz ahalik eta aldaera gehiago ikastea komenigarria izanen litzateke, sistemen aberagarritasunaz jabetzeko.

4.-Musika tresna

Eztabaidagarria bada ere, neretazako dantza maisu batek musika trenza bat jo behar du. Gutxienez perkusioa, zenbait konzeptoetaz jabetzeko: erritmoa, pulsoa, tempoa... Eta besterik ez bada, oso baliabide garrantzitsua izan daiteke eskolak emateko.

5.-Etnokoreologia

- Dantzen inguruko datuak: Bederen, dantza maisuak irakatsi behar dituen dantzen inguruko argibideak emateko gai izan beharko luke: non egiten den, noiz, zein da bere kontestua, aldaerak, bestelako datuak...
- Inprobisazioa dantza tradizionalan: "continuum" bat moduan ulertuta, erabateko inprobisaziotik erabat mugatua dagoen inprobisazioraino, adibide ezberdinekin: jota, jauziak, soinu zaharrak, erregelak...
- Dantza eta kantua. Adibide eta erabilpen ezberdinak.
- Irakaskuntzaren sistema tradizionalak: dantza maisuak.
- Dantza tradizionalaren akademizazioa. Eta ondotik eman den desakademizazioa: Urbeltzen errola
- Dantza tradizionala inguruko herrialdeetan. Amankomunean dugun errepetorio musikala eta koregrafikoaz jabetzeko.

Eusko Ikaskuntza – Folkore Saila

Emilio Xabier Dueñas

De las cualidades de un buen maestro de danza al uso de la tierra en siglo XXI

Introduciendo

El establecer unos criterios básicos que conformen los conocimientos y aptitudes de un profesor de danza tradicional encierran, cuando menos, la dificultad de no haberse realizado con anterioridad informe alguno al respecto.

Al margen de sentar bases y fundamentos que nos lleven a una sentencia rígida de los parámetros, deberemos entender que la relatividad es asimilable al lugar de procedencia o edad del maestro, tipología y origen del alumno, características del lugar de ensayo, hora del día, fin del producto y así un sinfín de variables.

Antes de pasar a definir las posibles necesidades, estableceremos los puntos de apoyo, bastante generales y según así los he percibido y entendido:

- Fines: enseñanza de la danza tradicional, siguiendo unos cánones sistemáticos
- Territorio de desarrollo: Gipuzkoa
- Tipología del alumno/a: edades variables que van desde el mundo infantil hasta la juventud. Excluimos, en un principio la enseñanza a adultos y tercera edad. Existe una diferencia apreciable entre grupos de edad y esto debe ser tenido en cuenta
- Procedencia del alumno/a: Colegios, *Ikastolak*, Grupos de danza vasca o folclóricos, etc. Los conocimientos previos (musicales, coreográficos, deportivos) deben ser tenidos en cuenta

Debo insistir, muy a mi pesar, en la voluntariedad y altruismo que ha generado un cierto desorden y no menos desdén en muchos colectivos, lo que ha llevado a ciertas formas de trabajo muy distantes de unos mínimos requeridos, y aquí debo ser categóricamente

crítico respecto de una falta de metodología y negatividad en la búsqueda de soluciones.

Profundizando

A continuación repasaremos los principales aspectos que nos pueden llevar a obtener unos maestros¹ de danza acordes con la sociedad actual, sin dejar de lado otros aspectos legados de la "tradición".

Características generales del profesor, en las que se deberían cumplir varios requisitos:

- Varón o hembra, joven, de una edad aproximada entre los 18 y 30 años. No debemos generalizar y buscar una impropia igualdad entre sexos. Bien sabemos todos que, generalmente, y digo generalmente, los dos sexos no interpretan de la misma forma las danzas tradicionales. Por la propia complexión física, generalizando, el estilo, el cual es también cambiante y discordante entre los del propio sexo, puede llegar a ser notable. Quizá una solución sería el establecer que tipo de representación se acerca más a cada sexo.
- Conocimientos generales de la Cultura Vasca (Historia, Geografía, Política, Religión), entendida ésta en un territorio que abarca Euskal Herria (7 territorios), pero sin obviar todos los territorios colindantes. Debemos tener en cuenta que estos conocimientos deben servir al formador como cimiento del resto de valores de su propia cultura.
- Conocimientos específicos de las tradiciones y costumbres del país. La danza tradicional es un apartado más dentro del conjunto y así debe ser entendido.
- Conocimientos específicos de las danzas, consideradas tradicionales y las que, en un tiempo, pueden serlo. No debemos olvidar todas las nuevas coreografías que se han ido produciendo desde hace muchos años, llegando algunas de ellas a ser parte integrante del acervo cultural propio y tradicional de algunas localidades, tal y como lo fueron en otro tiempo las conocidas "oficialmente" como "tradicionales".
- Aunque no es de vital importancia, los conocimientos teóricos también podrían abarcar algunos aspectos de la danza contemporánea y clásica.
- Se hace necesario comprender la danza desde el estatus musical. No sería

¹ En este texto en todo momento, si no se dice lo contrario, emplearemos el género masculino pero éste quedará extendido, asimismo también, al femenino.

obligatorio el tener una carrera de solfeo, pero la importancia de la lectura e, incluso, interpretación de partituras se hace insalvable.

- Tanto, o más importante que bailar perfectamente es saber enseñar. Los buenos ejecutantes muchas veces no salen de los mejores bailarines. Por lo tanto, el profesor debe saber qué enseñar, cómo aprovechar las aptitudes del alumno y requerir el esfuerzo necesario para su ejecución.
- Las cualidades físicas son un aspecto a tener cuenta. Lo mismo que cualquiera no vale para bailar en un espectáculo, cualquiera no cumple con unos mínimos corporales. El maestro debe estar en plena forma para dar el máximo de sí mismo.
- El control del cuerpo se extiende a la práctica de los actuales sistemas de ejercicio físico y, sobre todo, de conocimientos prácticos de otras formas coreográficas, al margen de las existentes en el mundo tradicional. No sin antes, matizar rotundamente, el correspondiente funcionamiento rítmico mental-corporal, es decir un control de las melodías, ritmos y compases acordes con el producto de aprendizaje.
- Nos encontramos con una problemática surgida, al menos desde hace 100 años y sobre todo a este nivel. Se trata de la metodología, inexistente aún hoy en día a todas luces. Los intentos conocidos, hasta el momento, se antojan en cierta forma erróneos, escasos y cortos. Este hecho produce una contraindicación en el sistema de enseñanza. Cosa que no sucede en el aspecto musical. Creo que ya es hora que se invierta tiempo, y dinero consecuentemente, en crear una Metodología con criterio, sobre todo en relación a la edad del alumno y otros fundamentos.
- La relación directa entre profesor y alumno es determinante en el resultado final, así como el trato y respeto correcto por ambas partes.
- Idioma. Lo perfecto es el bilingüismo, al menos. No obstante, dependiendo de que a qué tipo de colectivo se proceda en la enseñanza quizá debiera declinarse este punto en relación a los anteriores. No lo tengo muy claro.
- El horario durante la semana y el lugar también son fundamentales, si es que hasta ahora algo de lo de más arriba no lo ha sido. No es lo mismo tener un ensayo a las 20:00 h. después de salir de trabajar un miércoles, que un sábado al mediodía; sobre todo si tenemos en cuenta que el alumnado puede padecer de práctica deportiva.

He dejado de un lado otros aspectos como la ayuda en la creación de representaciones, actitud en el lugar del baile y ante el espectador, así como otras funciones que debe

desarrollar el maestro de cara a concienciar al alumno ante ciertas formas de realizar las danzas. También he dejado de lado otro tema de formación. Se trata la canción y la teatralización. Estos dos aspectos son inexistentes, por ejemplo, en muchos grupos de danzas vascas.

Finalizando

La preocupación por la adquisición de conocimientos y control, generalmente, va unido a personas que realizan trabajos con ánimo de placer. En este mundo existe un porcentaje menor de personas que trabajan de lo que les gusta y, en este pequeño mundo de la danza tradicional, no está asumida esta perspectiva al día de hoy, por lo que se hace indispensable el acometer una base sólida que sustente el engranaje y funcionamiento posterior. Si los pilares son débiles se tambaleará el edificio, tal y como sigue funcionando en la actualidad.

La importancia de la consecución de todos y cada uno de estos apartados redundará en beneficio de todos y, sobre todo, del profesor y del alumno. Debemos tener en cuenta que la unión de la teoría y la práctica son fundamentales.

Tanto o más importante que establecer unos criterios, en los que podemos estar de acuerdo o no, acerca de la idoneidad de éste u otro método, existen una serie de preguntas y/o comentarios a tener en cuenta en un orden global:

- Necesidad social.
- El costo, entiendo, es asumible siempre que esté detrás una institución oficial que lo soporte. Si realmente queremos un producto de calidad, y en esto no va sólo incluido el profesor, sino también el resto de condicionantes que afectan de forma directa a la meta a conseguir.
- Es importante tener en cuenta que la enseñanza y aprendizaje debe tener un fin concreto. Éste se debe enmarcar en la capacitación, con más o menos carácter, del alumno a la hora de participar en un escenario público, y con esto no quiero decir en un escenario de cara al público ofreciendo espectáculo (ejemplo representaciones de grupos de danza/folclóricos en una plaza o tablado).
Ante la asimilación, por parte de una conciencia colectiva de que todo niño/a, joven o adulto, tiene una misión, más o menos fija, más o menos establecida, de bailar para y hacia el público, se hace necesario recalcar que esto no es una obligación, tal y como se demuestra habitualmente.
- El proceso de desarrollo es el que nos catapultará hacia la meta. Aquí nos encontramos con varios desarrollos: el cultural general, el físico, el de psicomotriz, o

el autóctono-plural.

- Las metas del proyecto son el porqué de la realización del mismo. Si no conocemos, o no buscamos, la salida definitiva, en ningún momento entenderemos por qué se hace.
- No todo funcionamiento en favor de la danza tradicional ha generado un mal intencionado carácter de respuesta. Los grupos de danza han cumplido un factor determinante en la preservación de ciertas tradiciones y en la relación social. Hoy en día, y desde hace unos años, esto va cambiando y se deben buscar nuevas fórmulas de mantenimiento.

Este apoyo clave que fundamento en los grupos de danza, es debido a la fuerza que han ejercido los mismos en la sociedad, aunque esto no se vea de forma palpable y en parte debido a la desactualización generada.

Posiblemente me haya dejado fuera del tintero más de una apreciación... lo cedo a otros interlocutores más válidos que yo.

Para finalizar, desearía exponer que lo aquí se presenta son unas muy breves anotaciones concretas, parciales y provisionales, del gran abanico que representa la utilización, difusión, divulgación y enseñanza de una parte de nuestro, minoritario, legado el cual está adscrito, por un lado, al resto de la tradición como parte anexa y, por otro, a la expresión corporal y a las Bellas Artes.

La calidad es fundamental en el desarrollo de todo sistema curricular y así debe ser tenida en cuenta. Metodología sistemática excluida, conforme a las carencias existentes, pero que debe ser creada-elaborada y desarrollada.

Euskal dantza tradizionalen ikasketa curriculuma

Adituen txostenak

- Gipuzkoako EDB
- Ikerfolk

Dantza Irakaslearen Formakuntza

Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra

2.009ko Martxoak 24



GIPUZKOAKO DANTZARIEN BILTZARRA

AURKEZPENA

Haur batek, gehienetan dantzarekin duen lehenengo harremana eskolatik datorkio, Haur Hezkuntzan hain zuzen ere. Ikastoletan, neurri batean edo bestean, dantzarekin erlazionatutako hainbat jolas, dantza eta abesti erabiltzen dituzte. Bere irakasleek ilusioa eta motibazioa transmititu egiten diete eta hurrek zerbait dibertigarria bezala hartzen dute.

Aurrerago, Lehen edo Bigarren Hezkuntzan dantzek bere gorputza hartzen dute: dantza ezberdinak ikasten dira, teknikak sakontzen dira, dantzaren arlo eta elementu desberdinak ezagutzen dira (taldean, bakarka, plazan, oholtzan)...

Adin honetatik aurrera dantza egiten duen pertsona kopurua murriztu egiten da eta jarraitzen dutenak, edo momentu horretan inkorporatzen direnak, batez ere hiru eremu hauetan mugitzen dira:

- Akademia pribatuen munduan. Dantza mota desberdinak egiten dira: klasikoa, kontenporanea, saloi dantzak...
- Dantza talde tradizionaletan. Hauek ohiko dantzak erakutsi eta errepresentatzen dituzte. Euskal dantza taldeak bezala ezagutzen dira.
- Prestakuntza sakonagoa egitera Euskal Herritik kanpo doazen dantzariak.



GIPUZKOAKO DANTZARIEN BILTZARRA

Guzti honetan badago adin guztiak zeharkatzen dituen ardatz nagusi bat: ilusioa, motibazioa eta dantza egitearen pasioa. Ilusio hau transmititu egin behar da eta horretarako konpetentzia horretan trebeak diren pertsonak formatu behar dira.

Gai hau ez da berdina adin guztietan. Dantzariak, haurrak direnean errazagoa izaten da hauek motibatzea. Baina koskortzen diren neurrian ilusioa eta dantzatzearen gogoia galtzen doaz eta dantzarien kopurua erabat murrizten da adin horietan.

Beraz, dantzaren konpetentziak planteatzerakoan kontutan izan behar dugu dantza-irakasleek dantza, pauso, teknika eta hainbat elementu ezagutzeaz gain (jatorria, janzkera,...) batez ere, dantza egitearen motibatzaile eta ilusio sortzaileak izan behar dutela.



GIPUZKOAKO DANTZARIEN BILTZARRA

DANTZAREN LEHENENGO URRATSAK: 3-6 urte (Haur Hezkuntza)




ILUSIOA, MOTIBAZIOA, PASIOA transmititu



DANTZAREN GORPUZKERA: 6-11 urte / 11-14 urte Lehen eta Bigarren Hezkuntza

GAZTEEN/HELDUEN DANTZA



Dantza akademi
Pribatuen
mundura (edozein
motatako dantza
akademia)

Euskal Dantza
Taldeen mundura

Beste batzuk
(Profesional mailan
normalean atzerrira
joan behar dutenak)



GIPUZKOAKO DANTZARIEN BILTZARRA

KONPETENTZIAK

Konpetentziak planteatzerakoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko dekretua erabili dugu eredu moduan.

